

# ¡AMA...ALABA.. ETA!...

## ¡KUPIGARRIYAK!

(Azkeneko indar-neurtzeetan Aipamen onragarria irabazia.)

AZALKAYA:

¡ZER UTZAK GERAN!

Begira negon, bañan nolatan  
 Egon ayeri begira...  
 Ikusi utzez baldin baziran  
 Biyotzak egiten jira?...  
 Zertako bizi, gozamen denak  
 Orretarako badira!...  
 Zertarako ez, gošo ta miñak  
 Egin guk orain erdira...  
 Edo azaben lege santuak  
 Orain, zertarako dira?...

Giza onetan, ama gašuak,  
 Seaskan zeukala aurra  
 Biyotz barrena sartu zitzayon  
 Koitaduen deadarra;  
 Maindiriaren egala'rekin  
 Chuka ta chuka negarra  
 Arkitutzen zan, ¡doakabea!...  
 ¡Zer bizi modu medarra!...  
 Iñork lezaken sasoi onena...  
 Ta geldi bear igarra!

Negar amachok; negar aurchuak;  
 Negar, mintzu ta epela...  
 Seasken *¡din dan!*; soñu motela  
 Penaz entzuten zubela...  
 Begiratu bat didziza zana...  
 Illundu nayan bezela...  
 Non ziruriyen, argi egonik,  
 Illuntzen zubela gela...  
 ¿Biyotzberuak meresialdu  
 Ordaintzat betiko jela?

Gel arretako oroimenakin  
 Negarti nere begiya;  
 Ezin aztu zait zer apain zeguan  
 Seaska churi-churiya,  
 Nola kabiyan gozmendurik  
 Arkitutzen dan chorinya,  
 Aldamenetik maitaturikan  
 Dubela ama eziya,  
 Eman nairikan berak beardun  
 Ta bearko dun guziya!...

Leyatillara noizian beinka  
Emanik bere pausuak;  
Aita azaltzen ore zan, anchen  
Zebillen dena isuak...  
¿Zertan gudara deitu ziyoten,  
Emen egonik besuak,  
Aita onari eman nairikan  
Laztancho gozo-gozuak?...  
¡Eta aitacho kateturikan  
Guda madarikatuak!...

Anjeluz'aren kanpai otsaren  
Batera bere aurchuak,  
Beti-betiko ichi zituben  
(¡Kotarua!) begichuak!...  
¿Nola iraun lertu betanik  
Ama gajuenpechuak!...  
Non albiste au eman ziyoten  
Jaso zubena ausuak :  
«Zure senarra *balaso batez*  
Artu du betiko luak...  
.....!»

RAMÓN GUELBENZU

